



ATERPE LEIOA GAZTEGUNEAREN ESPAZIOAK ETA ZERBITZUAK ERABILTZEKO PROTOKOLOA ETA PREBENTZIO-ARAUAK

Aterpe Leioa Gaztegunearen espazio eta zerbitzuen erabilera.

- Ikasketa gela.
- Gazte Bulegoa- Arreta.

Aterpe Leioa Gaztegunearen **edukiera mugatua** egongo da, eta zerbitzuak **aldez aurretik hitzordua** eskatuta kudeatuko dira.

Aldez aurretik hitzordua hitzartzeko **94 405 58 50** telefono bidez edo **gazte@leioa.net** posta elektronikoz egin beharko da.

ZERBITZUEN ORDUTEGIAK

Zerbitzua astelehenetik ostiralera emango da,

- Goizez 10: 15etik 13: 45era.
- Arratsaldeaz 16:45etik 20:15era.

EDUKIERA

Ikasketa-gelari dagokionez, **27 leku** izango dira guztira, **banakako ikasketarako**.

Kontsultak, kudeaketak, nazioarteko txartelen izapideak ... banakako aurretiazko hitzorduarekin kudeatuko dira. Baimenduta dago laguntzaile bat egotea adingabeen eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen kasuan.

HIGIENE- ETA OSASUN-NEURRIAK

Pertsonen arteko distantzia 2 m-koa da.

Sei (6) urtetik gorako pertsonak nahitaez erabili behar dituzte sudurra eta ahoa estaltzen dituzten **maskarak**, batez ere higienikoak eta kirurgikoak.

Ez zaie maskara erabiltzea eskatzen arnasteko zailtasunen bat duten pertsonari, edo ezinbesteko arrazoiengatik edo premia-egoeratik.

Instalaziora sartu aurretik tenperatura kontrolatzea gomendatzen da.

Eskuak urez eta xaboiz edo gel hidroalkoholikorik garbitzea instalazioetara sartzean eta handik irtetean. Gel horiek jarriko dira espazio desberdinetan.

Gomendio horiek osasun-agintarien jarraibideen mende daude uneoro.